



Ula Iruretagoiena Busturia
Arkitektoa

Lurraldearen ingurumen plangintzarik?

Klima aldaketak ekartzen dituen eta ekarriko dituen fenomeno naturalen borritzkeria ez da inolaz ere izaera «naturalekoa». Giza esku hartzearen eta ingurumenaren arteko desorekaren emaitza da. Telebistako pantailatik, sofa aurrean eroso gaudela meteorologoaren ahotsetik entzuten ditugun klimaren eragin suntsitzaileak, lurra- ren gaineko akzio politikoen produktu dira maila oso handi batean. Klima aldaketaren inguruan sortu den narratiba hegemonikoan –mezu bakuna izatetik urruti– ematen du borrokatu beharreko arerio maltzur bat etorri dela gurera. Horrela lortzen da gertaeren erantzulea abstraktu bilakatzea, giza-kiok sortu dugun egoera baten aitortzan zentratu beharrean. Ezin uka, ordea, azken hamarkadotan lurraldearen gain ezarri diren ingurumen legedi, arau zuzentzaile eta europar hitzarmen oparoek, giza aktibitateek ingurumenean eragiten duten ondorio latzen


gaineko sentsibilitatea hedatu dutela. Legeetan irakurtzen diren printzipioek ingurune naturala giza jarduera agresibotik eta gehiegizko antropizaziotik babestu nahi dute, eta, bide batez, baliabide naturalen parametroa hiri plangintza egiterakoan kontutan hartzera behartzen du.

Lurraldearen euskarri biofisikoaren plangintzak hiru helburutan jartzen du fokua: suntsitutako, kutsatutako edo kaltetutako habitaten berreskurapenean, lurra- ren berariazko ezau- garriak garatzean eta baita beraien babespe- nean ere. Plangintza horrek lurralde eskalako azterketa eskatzen du, eta, ikertu beharrekoaren konplexutasunak, ikuspegi sektorialetik abiatzera bultzatu du. Euskal Autonomia Erkidegoan, lurraldearen, ibaien eta ibaiertzen, ingurune hezeen eta nekazaritza-abeltza- zaintza-basogintza arloko planak egin dira. Plangintzotan lurra- kategoria desberdinetan banatzen da –batzuetan kategoria homogeneoe-

giak ez ote diren zalantza piztuz–. Kate- goria bakoitzari araudi bat atxiki zaio, giza erabilpenerako mugak ezarriz. Plan sektorial guztion gainjartzeek mapa konplexu bat ekartzen dute emaitza gisa.

Lurralde eskalatik udal eskalara “jais- ten” garenean, ingurumen legediak eta plangintza sektorialak lotesle dira. Gai- nera, udal lurretan garatu nahi den edo- zein giza jarduera –dela ur hoditeria, dela auzo bat– ingurumen txosten bat izatera behartuta dago. Dokumentu ho- rrek proposamenaren alternatiba posi- bleak baloratuko ditu, eta giza akzioa aurrera eramateko beharra justifikatu behar du. Behin proposamen egokiena aukeratuta, giza aktibitatearen eragin- en balorazioa gaineratzen da –ekonomikoa ahaztuta– eta eraginok murrizteko “neurri zuzentzaileak” ezartzen dira. Dokumentu horiek erabilgarritasun muga handia dute: udalerriaz gaindiko lurraldean eragiteko eskumenik ez iza- tean, balorazioa unitate biomorfologi- koaren eremuan egin beharrean, muga administratiboan arabera egiten da. Hots, ikuspegi sektorialek sorturiko mapa konplexua interpretatzeko tresna izatea baliogabetzen da. Bestalde, giza aktibitateen garapenari “bermea” ema- ten dion txostena zeharkako ikuspegia barneratzeko ahalegin bat bada ere, oraindik politikarien eta arkitekto-hiri- gileen begirada partziala –eta interes- duna– lurraldearen gaineko erabaketan nagusi dela baieztatzen auzartuko nin- tzateke.

Ingurumen plangintza, existituko ba- litz, administrazio mugak eta begira- da sektoriala gaingituko lukeen plan- gintza litzateke. Ingurumenaren hitz zabalaren azpitik, ulermen ekosiste- mikoa baitago, non izaki bizidunak, euskarri biofisikoa eta osagai kultura- la kontutan hartzen diren, guztien ar- tean lankidetzat bat sustatzeko as- moz. Ingurumen plangintza delako honek lurraldearen ulermen eta gara- pen ereduaren aldaketa ekarriko luke, eta, horrekin batera, hainbat giza jar- dueren zilegitasuna ezbaian jarri. Bide horretatik, klima aldaketaren aurkako benetako iraultza hasiko litzateke. •



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA